

SANTURTZIKO XVIII. ITSAS-INAUTERIA OINARRIAK

1. PARTEHARTZAILEAK

Nahi duten guztiak parte hartzeko aukera izango dute, santurtziarrak izan zein ez, eta adina edozein dutelarik, betiere euren asmoa jantzita daramaten mozorroaz Santurtzi giro alai eta koloretsuz betetzea bada.

2. TOKIA, EGUNA ETA ORDUA

- Eguna:** OTSAILAK 25, larunbata
- 18:30ean** Parte hartzaileak Sardinera Parkean bilduko dira.
- 19:00etan** Desfilea hasiko da.
- Ibilbidea:** Sardinera parkea, Itsasalde kalea, Vapor Habana kalea eta Gernika Parkea.
- 20:30ean** Dietak banatu eta dortsalak jasoko dira Casa Torre Jauregian.
- 21:30ean** Sari-banaketa Gernika Parkean.

3. KATEGORIAK

- Taldea (4 pertsona baino gehiago)
- Bakarka

4. IZEN EMATEA

Izena **otsailaren 21era arte** eman beharko da, hurrengo hauen bidez:

- Serantes Kultur Aretoaren web gunean: www.serantes.com.
- Casa Torre Jauregian: astelehenetik larunbatera 9:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:30era.

5. BETEBEHARREKOAK

Parte hartu nahi duten guztiak hurrengo hauek bete beharko dituzte:

- Izena otsailaren 21a baino lehen eman, 21:30ean beranduen.
- Otsailaren 23ko bileran** parte hartu. Bilera **20:30ean** izango da **CASA TORRE JAUREGIAN** (Sabino Arana, 5). Dortsalak bertan banatuko dira.
- Inauteri egunean Sardinera parkean 18:30ean egon eta desfilearen ibilbidea burutu.
- Antolatzaileek ezarritako arauak bete.

6. DESFILERAKO ARAUAK

Desfilea hasi baino lehen

- Sardinera parkean egingo den kontzentrazioan taldeak Sardinera parkeko espaloian jarriko dira, eta ibilgailuak errepidean, Zierbenarako norabidean, baina Itsasalde kalera begira.
- Sardinera parkeko zuhaitzetan parte hartzaile bakoitzaren zenbakia eta mozorroaren izena erakusgai dituzten kartelak ipiniko dira, taldeek non jarri behar diren, eta aurrean eta atzean zein talde dituzten jakin dezaten.
- Lehenengo zuhaitzaren eta Miramar jatetxearen artean informazio-gune bat ezarriko da, argibideak edo azken orduko oharra emateko, edota badaezpada, bestelako ezustekoak baleude. Informazio-gune honetara talde bakoitzeko ordezkari bat baino ezin izango da bertaratu, jende pilaketa saihestearren.

Desfileak dirauen bitartean

- Desfilearen ordena antolaketa-irizpideen arabera ezarriko da, eta ezin izango da ibilbide osoan aldatu.
- Gomendatzen da aurreko taldearekiko tarte egokia izatea, epaimahaiaren lana erraztearren.
- Parte hartzailearen zenbakia duen dortsala epaimahaiak ikusteko moduko tokian jantzi beharko da.
- Mozorroen osagarriek edo tramankuluek **ezin dute garaieran 5 metro baino gehiago neurtu.**
- Lehiaketan parte hartzen ez duten guztiak desfilearen atzeko partean jarriko dira.

Desfilea amaitu ondoren

- ❑ Desfilea Gernika parkera heltzen denean, ibilgailuek errepidean aurrera jarraitu beharko dute Gernika parkean gelditu gabe, trafikoa ez oztopatzeko
- ❑ 20:30etik aurrera dortsalak jaso eta dietak banatuko dira Casa Torre Jauregian.
- ❑ Dietak izena emateko agirian azaltzen den taldearen ordezkariak jasoko ditu, beste inork ez, nortasun agiria erakutsi eta jaso agiria sinatu ondoren. Adingabea izanez gero, helduak lagunduta joan beharko da, dirua helduari emango zaio eta jaso agiria beronek sinatuko du.
- ❑ Antolakuntza arrazoiak direla-eta, eta sari-banaketa dinamikoago egite aldera, garaikurra jaso behar dutenak baino ez dira agertokira igoko. **Gehienez taldeko 2 lagun.**
- ❑ Sari-banaketa amaitu ondoren, diru-saria Casa Torre Jauregian jasoko dute, dietak banatuko diren baldintza berberetan.

7. SARIAK

TALDEA 1.saria: 1100€ + garaikurra 2.saria: 900€ + garaikurra 3.saria: 800€ + garaikurra 4.saria: 660€ 5.saria: 550€ 6.saria: 440€	7.saria: 330€ 8.saria: 275€ 9.saria: 220€ 10.saria: 165€ 11.saria: 110€ 12.saria: 100€
BANAKA Sari bakarra 250€ + garaikurra	TRAMANKULU ONENA Sari bakarra 250€ + garaikurra
ITSAS-MOZORRO ONENA TALDEKA: Saridunen artean itsasoarekin lotutako mozorroak dituzten taldeak badaude, onenak 500 euroko sari-gehiagarria irabaziko du.	

Horrez gain, 15 lagun edo gehiago dituzten taldeei 50 euroko 30 dieta emango zaie gehienez, eta dietak izena eman duten ordenaren arabera banatuko dira.

8. EPAIMAHAIK BALORATUKO DITUEN ALDERDIAK

Epaimahaiak hurrengo alderdi hauek baloratuko ditu:

- ❑ Originaltasuna: mozorro berriak, Santurtzin inoiz ikusi gabeak, bitxiak...
- ❑ Mozorroari eskainitako lana: Mozorro bereziak, eskuz eginak, osagarriak dituztenak, apaingarriak, gauza handiak...
- ❑ Desfilea dirauen bitarteko animazioa eta eszenaratzea: koreografiak, musika, abestiak, ekintzak... ibilbidean zehar

Epaimahaiak erabakitzen duena apelaezina izango da

Epaimahaiak aukera izango du edozein sari jabegabe uzteko, baldin eta bere iritziz, inork ez badu dena delako saria irabazteko kalitate nahikoa erakutsi.

Ekitaldiaren antolatzaileek edo epaimahaikideek interpretatu eta konponduko dute oinarri hauetan aurreikusi ez den edo zalantzakoa den edozein gorabehera.

9. OINARRIAK ONARTZEA

Lehiaketa honen parte hartze hutsak oinarri hauek onartzen direla adierazten du.

-ALDAKETAK EGON DAITEZKE OINARRI HAUETAN, INDARREAN DAGOEN OSASUN-ARAUDIAREN ARABERA-